# Desira zena egia bihurtu zenekoa


## Ana Isabel Veites eta Manuel Lago

Adopzio-gurasoak 2016tik

Semearen jaioterria: Errusia


**Elkarrenganako** maitasunak bultzatu gintuen familia bat osatzera. Mingarria izan zen guraso biologiko ezin izatea, baina gaur badakigu zuganainoko bidearen parte izan zela hori ere. Era berean, min horrexek laguntzen digu, hein batean, zeurea ulertzen.

Guretzat, familia maitasuna da, baldintzarik gabe elkar zaintzea. Ez zaigu inporta ez arraza, ez zure azalaren kolorea; zure bila munduaz bestaldera joan behar bagenu ere, ez litzaiguke inportako.

Zu: horixe besterik ez zaigu inporta. Hainbestetan gure ondoan irudikatu genuen izakitxo hori.

Hainbeste irrikatzen genuen familia hura osatzeko ametsa bete dugu zurekin; bizi honetan izan ditugun maitasuna eta zortea partekatzen ditugu zurekin, eta zuk mila aldiz handiagoak egin dituzu biak.

Eguneroko gauzarik onena egun hori zurekin pasatzea da, negar egiten duzunean kontsolatzea, erortzen zarenean eustea, eta, batez ere, barre egitea, zurekin barre egitea.

Zure adopzio-gurasoak gara, eta hortxe egongo gara zuri mina arintzeko, maitasuna emateko, lagun egiteko, eta zure bizitzan gidari izateko, gu bizi garen artean.

Zuri esker, egun oro opari hutsa da guretzat.

Zure guraso bihotzekoak.

Maite zaitugu.

* * *

Gure semea ezagutu aurretik, luzaroan ibili ginen hura irudikatzen. Eskutitz hori idatzi nionean, hain zuzen, oraindik ez nuen ikusia haren aurpegia, ez aditua ere haren ahotsa, eta oraindik ez nekien zenbateraino biziaraziko zuen gure etxea –adopziorako prestatzeko eskoletan idatzi nuen gutuna, ariketa gisa–. Baina gauza bat banekien ordurako: patua zela gure bideak noizbait elkartzea.

Gure bizitzara iritsi zen egunean, istorio bat benetakoa hasi zen orduan, edozein amets baino askoz ere sakonagoa eta eraldatzaileagoa. Elkarren familia izatea ez da bide perfektua izan, ezta erraza ere beti. Garai zailak ere izan ditugu, baina horrek, urrundu ez, sendotu egin gaitu. Asko ikasi dugu bide horretan, asko borrokatu gara, eta pazientzia ere amaigabea izan dugu.

Gure semea ez zen etorri hutsune bat betetzeko, baizik ordura arte ezezaguna zitzaigun modu batean guri bihotza zabaltzeko

Aldi berean, ordea, gauza funtsezko bat ikasi dugu: familia batean benetako maitasuna ez datzala odol-loturetan, hau da, gurasoen eta seme-alaben arteko maitasunaren funtsa ez dela inoren jabe izatea, baizik lagun egitea.

Gure semea ez zen etorri hutsune bat betetzeko, baizik ordura arte ezezaguna zitzaigun modu batean guri bihotza zabaltzeko. Munduari bestelako begiz so egiten irakatsi digu, eta bere ondoan hazten, eta familia izatea benetan zer den ikasten.

Hitz hauekin datorren argazkian bezalaxe, egun batean gure oinatzak elkarrekin markatuta geratu ziren hondarretan, eguzkitan. Egun batean, hiru bide haiek elkarrekin topo egin zuten, eta, orain, elkarrekin doaz aurrera, elkarren ondoan, berak hala nahi duen arte.

Badakigu bere bizitza berea dela, bere istorioa berari dagokiola, eta gure egitekoa zera dela: behar duen heinean ondoan ibiltzea, premia duenean sostengatzea, eta haren pauso guztiak ospatzea.

Eta gaur zerbait argi baldin badugu, hauxe dugu: ekarri dizkigun poza, maitasuna eta argia edozein zailtasun baino askoz-askoz handiagoak direla.

Elkarren familia izatea ez baita jatorri-afera bat: elkarrekin topo egitea da kontua.

Eta guk elkarrekin topo egiteko zori ona izan genuen.

